

Hiru hiritatik batean oztopo arkitektonikoak daude, eta irisgarritasun arazoak sortzen dituzte

**KIROLDEGIETAN ANTZEMAN DITUGU GABEZIARIK
HANDIENAK GURPIL-AULKIAN DOAZEN PERTSONENTZAT**

- Zenbait pertsonak gurpil-aulkian ibili behar izaten dute eguna joan eta eguna etorri, eta beti ez zaie erraza gertatzen hiri eta herrietan barrena paseo bat ematea edo garraio publikoa erabiltzea. Espainiako Estatuan, herritarren % 6k pairatzen dute mugikortasunarekin zerikusia duen ezintasunen bat. EROSKI CONSUMERek jakin nahi izan du ea kolektibo horrek zer neurritan egin ditzakeen zenbait jarduera, ezintasunik ez duten pertsonentzat ohikoak izan daitezkeenak: autobusean bidaiatzea (zoriz hautatu dugu linea), hirian ibilbide bat egitea (20 minutukoa, gehienez ere), eta udal igerileku batean igeri egitea. Horretarako, aldizkariko teknikariak Estatuko 18 hiriburu hauetan ibili dira maiatzean, gurpil-aulkian joan ohi den pertsona bati laguntzen: A Coruña Alacant,artzelona, Bilbo, Cadiz, Donostia, Gasteiz, Granada, Iruñea, Kordoba, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza. Bisita horien osagarri, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak biltzen dituzten hainbat elkarteren laguntza izan dugu (consumer.es gunean dago zerrenda osoa).

Hainbat ondorio atera ditugu azterketa egin ostean, baina haxe da nabarmenena: azken urteetan hiriek lan handia egin dute gurpil-aulkian doazenen irisgarritasuna hobetzeko, baina oraindik bada zeregina franko. Azterketaren emaitzak ere halaxe erakusten du: emaitza 'onargarria' izan da 18 hirientzat, nahiz eta banan-banan hartuta, alde nabarmenak antzematen diren batzuen eta besteen artean. Iruñeak eta Donostiak, adibidez, emaitza 'oso ona' eskuratu dute; hiririk kaskarrenak, berriz, Bilbo, Malaga eta Sevilla izan dira ('hala-holako' emaitza); A Coruña, Cadiz eta Oviedo maila 'onargarrian' geratu dira, eta Alacant,artzelona, Gasteiz, Granada, Kordoba, Madril, Murtzia, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza emaitza 'ona' lortzeko gai dira.

OZTOPO ARTEAN PASEATUZ

Hirietan kalez kale ibiltzea ez da dirudien bezain erraza. Mugikortasuna murriztuta duten pertso- nek hainbat oztopo arkitektoniko aurkitzen dituzte oraindik ere. Halaxe egiaztatu du EROSKI CONSUMERek 18 hiritan barrena egindako ibilbideetan (10 minututik 20 minutu artekoak izan dira).

Ibilbide guztiak hartuta, emaitza 'onargarria' izan da, baina badira aldeak hiri batzuetatik besteetara. Iruñekoak, Donostiakoak eta Valladolidekoak irisgarriak izan dira eta 'oso ontzat' jo dituzte teknikariek. A Coruña-koak, Cadiz-koak eta Sevillakoak, aldiz, 'hala-holakoak' izan dira. Emaitza 'ona' lortzera iritsi dira Bartzelona, Bilbo, Kordoba, Madril, Oviedo, Valentzia eta Zaragoza, eta 'onargarria' baino ez Alacant, Gasteiz, Granada, Malaga eta Murtzia.

Ibilbideetan zehar, teknikariek eta gurpil-aulkian joan diren pertsoek ikusi dutenez, zorua ez da izan egonkorra kasuen erdietan, eta galtzadarri harrotuak aurkitu dituzte, baldosa apurtuak eta irtenak, koska handiak, zuloak, galtzada hondoratuak... Egoera arriskutsuak sortzeko moduko eragozpenak dira horiek guztiak, eta maiz samar egokitu zaizkie A Coruña, Bartzelonan, Bilbon, Cadizen, Gasteizen, Granadan, Oviedon, Sevillan eta Zaragozan.

Garrantzitsua da, halaber, espaloia aski zabala izatea eta oztoporik ez edukitzea, gurpil-aulkia arazorik gabe pasa dadin (120 zentimetro edo gehiago edukitzea komeni da inolako oztoporik gabe). Lau hiritatik batean, ordea, ez da bete baldintza hori, eta egoerarik kaskarrena Cadizen antzeman dugu, non oztopo ugari izan baitira bidean: paperontziak, eserlekuak, lorontziak, haitzatzatze-saretak, isurbideak edo estolda-zuloak, tabernetako aulki eta mahaiak...

Donostian, Gasteizen eta Malagan, espaloia eta galtzada maila berean egon dira ibilbide guztian, baina ez da izaten ohikoena. Maila berean ez daudenean, espaloi-ertzak ez ditu eduki behar 14 zentimetro baino gehiago, baina hiru ibilbidetatik batean handiagoa izan da. Bi kaleren elkargunera iristean, funtsezkoa da espaloia beheratua egon dadila eta galtzadaren maila berera etor dadila, baina ez da halakorik gertatzen hirien erdietan. Alacanten, adibidez, gurpil-aulkian joan den lagunak galtzadatik joanez egin behar izan ditu 20 metro, pasabide goratu bat aurkitu eta espaloi- ra igotzeko modua izan duen arte. Espaloia beheratua egon den lekuetan ere, ordea, izan dira arazoak (bi, nagusiki): koska txiki bat eduki dute bukaeran (Granadan eta Valentzian) edo malda pikoegia (Malagan eta Valladoliden).

Bidean aurki litekeen oztoporik handiena eskailerak dira, eta bost hiritatik batean egokitu zaizkigu. Gune horiek igarotzeko, arrapak erabiltzen dira zenbaitetan, eta halaxe egin dute A Coruña, Cadizen, Murtzian eta Zaragozan; dena den, horietako batzuetan gabezia batzuk antzeman ditugu: malda pikoegia izan da, leku gutxi eduki dute aulkia egoki erabiltzeko...

EZUSTEKORIK GABEKO BIDAIA

Hiri-autobusak garraiobide bat gehiago izar beharko lirateke, nahiz eta gurpil-aulkian doazenentzat, itxuraz, ez diren hala. Ez omen dute erabiltzeko joera handirik (halaxe adierazi digute azterketa honetan parte hartu duten kideek), eta are gutxiago norbaitek lagundu ezean. Bilbon eta A Coruña azterketa egiten lagundu diguten bi lagunek, adibidez, ordu arte sekula ez zuten erabili. Izan ere, hainbat arazo sortzen zaizkie arranpekin, eta gidariek ez dute enpatia handirik erakusten.

Eragozpenak eragozpen, ordea, EROSKI CONSUMERek egin dituen autobus-bidaiek, batez beste, emaitza 'ona' eskuratu dute. Alacant, Cadiz, Donostia, Gasteiz, Granada, Iruñea eta Malaga izan dira onenak (emaitza 'oso ona'); A Coruña, Bartzelona, Madril, Murtzia, Sevilla, Valentzia eta Valladolid etorri dira ondoren (emaitza 'ona'). Kaskarrenak, berriz, Bilbo, Kordoba, Oviedo eta Zaragoza izan dira ('onargarria'). Hiri bakarra ere ez da geratu azterketa gaingitu gabe.

Lau hiritatik batean espaloia ez da aski zabala gurpil-aulkia arazorik gabe pasa dadin



Zerbitzuaren irisgarritasunak geltokietan hasi behar du. Bisitatu ditugun geltokien % 22tan, ordea, ez da egon lekuri gurpil-aulkiarentzat (Alacanten, Bilbon, Cadizen eta Valentzian). Lautik batean, berriz, oztopoak aurkitu ditugu: A Coruña, autoak zeuden aparkatuta; Bilbon, zuhaitz bat gertuegi egon da autobus-aterpetik; Cadizen, jarlekuek traba egin dute; eta Oviedon, galtzadarriak falta izan dira eta zulo arriskutsu bat egon da. Hala eta guztiz ere, zorua egonkorra izan da hiri guztietan, eta ez da egon ez hartxintxarrik, ez harrearik ez lur solterik.

Autobusa iritsi denean, Murtzian eta Valladoliden ezin izan da jakin egokituta egon ote diren, ez baitute eduki horren berri emateko pegatina edo itsasgarriarik. Hala ere, hiri guztietako autobusek eduki dute aulkia igotzeko plataforma edo arrampa, nahiz eta Bilbon kateatu egin den hasieran. Kordoban, berriz, malda pikoegia eduki du.

Autobusera sartzean, ate guztiak behar bezain zabalak direla egiaztatu dugu (metro batekoak, gutxienez). Dena den, billetea balioztatzeko edo ordaintzeko, laguntzaile batekin joatea ezinbestekoa gertatu da zenbait hiritan, bestela oso zaila gertatzen baita: Bilbo, Cadiz, Gasteiz, Granada, Kordoba, Madril, Sevilla, Valentzia eta Zaragoza. Kasu horietan, billetea balioztatzeko makina gidariaren ondoan egon da, hau da, gurpil-aulkia sartzeko lekutik urruti. Gauza onen artean, nabarmenezkoa da autobus guztiek eduki dutela gurpil-aulkian doazenentzat egokitutako eremu bat.

KIROLA, IA GUZTIEN ESKURA

Guztientzako irispide egokiak al daukate igerilekua daukaten udal kiroldegiek? Hiri guztietako kiroldegia sakon aztertu ondoren, emaitza 'onargarria' eskuratu dute, batez beste. Donostian emaitza 'bikaina' lortu dute; Alacanten, Granadan, Madril, Valentzian eta Zaragozan emaitza 'oso ona'; Bartzelonan, Cadizen, Iruñean, Gasteizen, Kordoban eta Murtzian 'onargarria'; eta Oviedon, 'hala-holakoa'.

Bereziki nabarmenezkoa da Bilbon, Malagan eta Sevillan gertatu dena. Gainerako hirietan bezala, harreraguneraino joan, eta instalazioak ikusteko baimena eskatu dugu, gurpil-aulkian heldu den pertsonak igeri egiteko asmoa zuelako eta instalazioak behar bezala egokituta ote dauden ikusi nahi zuelako. Malagan eta Sevillan ez digute utzi sartzeko. Bilbon, berriz, ezinezkoa izan da kiroldegira sartzeko, 20 zentimetroko koska bat eta 8 eskailera eduki dituelako eraikineraren barrenean, eta ez zegoelako handik pasatzerik. Kiroldegiko langileek jakinarazi digute ez dagoela egokitua, eta berriago batera joateko gomendioa eman digute.



GURPIL-AULKIAN DOAZENENTZAKO IRISPIDEAK, EROSKI CONSUMERREN ARABERA. AZKEN EMAITZAK

HIRIA	IBILBIDEA ⁽¹⁾	HIRI-AUTOBUSA ⁽²⁾	IGERILEKUA DUEN UDAL-KIROLDEGIA ⁽³⁾	AZKEN EMAITZA ⁽⁴⁾
A CORUÑA	Hala-holakoa	Ona	Onargarria	Onargarria
ALICANT	Onargarria	Oso Ona	Oso Ona	Ona
BARTZELONA	Ona	Ona	Ona	Ona
BILBO	Ona	Onargarria	Ezin izan gara sartu	Hala-holakoa
CADIZ	Hala-holakoa	Oso Ona	Ona	Onargarria
DONOSTIA	Oso Ona	Oso Ona	Bikaina	Oso Ona
GASTEIZ	Onargarria	Oso Ona	Ona	Ona
GRANADA	Onargarria	Oso Ona	Oso Ona	Ona
IRUÑEA	Oso Ona	Oso Ona	Ona	Oso Ona
KORDOBA	Ona	Onargarria	Ona	Ona
MADRIL	Ona	Ona	Oso Ona	Ona
MALAGA	Onargarria	Oso Ona	Ez digute utzi sartzeko	Hala-holakoa
MURTZIA	Onargarria	Ona	Ona	Ona
OVIEDO	Ona	Onargarria	Hala-holakoa	Onargarria
SEVILLA	Hala-holakoa	Ona	Ez digute utzi sartzeko	Hala-holakoa
VALENTZIA	Ona	Ona	Oso Ona	Ona
VALLADOLID	Oso Ona	Ona	Onargarria	Ona
ZARAGOZA	Ona	Onargarria	Oso Ona	Ona
BATEZ BESTEKOA	Onargarria	Ona	Onargarria	Onargarria

(1) Ibilbidea: Ibilbide bat egin dugu hirian barrena, 20 minutuko, gehienez ere. Paso horretan, zoruaren egoera aztertu dugu, hiri-altzarren kokapena, eta seinaleena ere bai. Horretaz gain, kontuan hartu dugu espaloi-koskek zer altuera eduki duten ere, baita oinezkoentzako igarobideak eta semafororik izan den ere. Eskailerak eta arrapak erosoak izatea ere oso ontzat jo dugu (atseden hartzeko tarreak edukitzea, eskubanda izatea...). (2) Hiri-autobusa: linea bat zozir hautatu, eta huraxe hartu dugu. Lehenik, geltokiaren irisgarritasuna aztertu dugu (oztoporik izan den eta aski leku eduki duen aulkia erabiltzeko, zorua egonkorra edo labaina izan den, seinaleak erraz irakurtzekoak diren, beirako manparak babestuta eta seinale bidez adierazita egon diren), eta gero, ibilgailuarena berarena (igotzeko plataformarekin egokitua dagoela adierazten duen itsasgarria eduki duen, atea aski zabal izan den, txartel-makinek zer altuera eduki duten eta non egon diren, gidariaren jarraera egokia izan den). (3) Igerilekua duen udal-kiroldegia: Kiroldegia zozir hautatu dugu. Informazioa emateko eta instalazioak erakusteko eskatu diegu, gurpil-aulkian doan pertsona batek erabiltzeko modukoa den jakiteko. Lehenik eta behin, eraikineraren inguruko aparkalekua aztertu dugu, mugikortasun murriztua dutenei lekuri gordetzen dieten ikusteko. Ondoren, eraikinerako sarreran, ateen eta sarbideen irisgarritasuna aztertu dugu, eta barrenean, gurpil-aulkiarekin ibiltzeko aski leku egon den (igogailurik eduki duten, arraparik...). Azkenik, aldagela eta komun egokituak eduki dituzten begiratu dugu, eta horietara sartzeko irispiderik izan den edo ez. (4) Emaitza orokorra: aurreko hiru atletako emaitzen batez bestekoa da.



Hiri bakoitzaren aurpegi 'iluna'



A CORUÑA

Hiriko ibilbidea: Hala-holakoa. Gure azterketan egoera arriskutsuak sortu dira, zenbait leku egokitu gabe egon direlako eta zirkulazio handia ibili delako; ondorioz, gurpil-aulkian joan den pertsonak eta haren laguntzaileak aldatu egin behar izan dute ibilbidea.



ALACANT

Hiriko ibilbidea: Onargarria. Ibilbideko zoria ez da izan guztiz egonkorra (baldosa asko egon dira hautsita eta estolda-estalkien ertzak irrenda egon dira), eta zenbait lekutan labainkorra izan da. Era berean, espaloien ertz batzuk ez dira egon beheratuta, eta gurpil-aulkian joan den lagunak galtzadatik bertatik egin behar izan ditu 20 metro.



BARTZELONA

Igerilekua duen udal-kiroldegia: Ona. Eraikinaren barruko igogailuetan, gurpil-aulkia ezin izan da eroso mugitu (honako hauek dira gutxieneko neurriak: 100 zentimetro zabal eta 125 sakon). Igerilekuan, ez da egon sartzeko eskailera egokiturik, ez sakonera txikieneko eremura sartzeko arranparik, ezta ur azpian ibiltzen den jaso-gailu edo plataformarik ere.



BILBO

Igerilekua duen udal-kiroldegia: Ezinezkoa gertatu zaigu sartzea. Kiroldegi sarreran, 20 zentimetroko koska eduki du, eta arranparik edo igogailurik ez hura saihesteko. Behin barrera sartuta, zortzi eskailera jaitsi beharra zegoen harreragunera iristeko. Gainera, harrerako mahaia garaiegia izan da gurpil-aulkian doan lagunarentzat. Ezin izan dugu bisita jarraitu, eta harrerako langileen gomendioa izan da beste kiroldegi berriago batera joan gaitzela.



CADIZ

Hiriko ibilbidea: Hala-holakoa. Ibilbidean, espaloiak estuak izan dira zenbait tokitan, eta oztopoak ere aurkitu ditugu (espaloiak 120 zentimetro edo gehiago utzi behar ditu pasatzeko, oztoporik gabe): paperontziak, jarlekuak, lorontziak, haizeztatze-sareak, isurbideak edo estolda-zuloak, eta tabernetako aulkiak eta mahaia. Gainera, espaloien ertzak 14 zentimetro baino gehiago eduki dituzte, eta ez dira beheratuta egon. Azkenik, eskailera egokitu zaizkigu bidean.



DONOSTIA

Hiriko ibilbidea: Oso ona. Espaloi batzuen ertzak ez dira egon ongi beheratuak, eta eragozpen batzuk sortzen dituzte gurpil-aulkientzat.



GASTEIZ

Hiriko ibilbidea: Onargarria. Zenbait lekutan zuloak egon dira, baldosa hautsiak eta estolda-estalki mailatuak. Gainera, espaloiak zenbaitetan ez du eduki 120 zentimetroko gutxieneko zabalera izan gabe, eta itzulinguruka ibili behar izan dugu. Oztopoak ere aurkitu ditugu bidean: lorontziak, saltokien apaingarriak eta tabernetako mahaia.



GRANADA

Hiriko ibilbidea: Onargarria. Zoria gorabeheratsua eta labaina izan da zenbait lekutan. Espaloi-ertzak beheratuta egon dira, baina bi zentimetroko koskatxo bat eduki dute espaloien eta galtzadaren artean, eta traba egin dio gurpil-aulkian joan den lagunari. Gainera, oinezkoentzako igarobideak zertxobait estuak izan dira zenbait lekutan (180 zentimetro behar dituzte, gutxienez), eta haizeztatze-sareak, isurbideak eta estolda-zuloak traba egin dute.



IRUÑEA

Igerilekua duen udal-kiroldegia: Ona. Igerilekuan sartzeko eskailera egokituak falta izan dira, sakonera gutxieneko eremura sartzeko arranpa, eta ur azpian erabiltzeko jasogailuak.



KORDOBA

Hiri-autobusa: Onargarria. Autobusera igotzeko arranpa oso goian geratu da, eta autobus barreretan, berriz, gurpil-aulkian joan den lagunak ezin izango zukeen ordaindu laguntzaile gabe, zeren txartel-makina beste muturrean egon baita. Gidariak, gainera, ez du lagundu, eta nahiko zakar aritu da.



MADRIL

Hiriko ibilbidea: Ona. Espaloi-ertzak ez dira beheratuta egon zenbait lekutan, eta itzulinguruak emanez ibili behar izan dugu. Gainera, haizeztatze-sareak eta tabernetako aulki eta mahaia traba egin dute, eta harbideak ere oztopo dezente egin du: gurpil-aulkia trabatu eta bertatik erortzeko arriskua izan da.



MALAGA

Igerilekua duen udal-kiroldegia: Ez digute utzi sartzeko. Ate birakari bat eduki du sarreran, oso estua, eta nekez sartu gara. Harreraguneari informazio pixka bat eman arren, ez digute utzi sartzeko.



MURTZIA

Hiriko ibilbidea: Onargarria. Espaloiko zenbait tokik ez dute eduki 120 zentimetroko pasabiderik oztoporik gabe (ibilgailuek eta tabernetako aulki eta mahaiek sortu dute eragozpena). Eskailera saihesteko arranpak eduki ditugu, baina ez dute eduki gutxieneko zabalera izan gabe (120 zentimetro), eta lekuri ez da izan aulkia eroso erabiltzeko.



OVIEDO

Igerilekua duen udal-kiroldegia: Hala-holakoa. Harrera-mahaia ez du eduki garaiera egokia (80 zentimetro). Eskailera bidez soilik sar daitezke igerileku batera (ez dago arranparik edo igogailurik). Aldagela eta komun egokituak daukate, baina beste zerbaiterako erabiltzen dituzte. Igerilekuan ez dago sartzeko eskailera egokiturik, ez sakonera gutxieneko eremura sartzeko arranparik, ezta ur azpian erabiltzeko garabi, jasogailu edo plataformarik ere.



SEVILLA

Igerilekua duen udal-kiroldegia: Ez digute utzi sartzeko. Asko kosta zaigu sartzea, sarrerako arranpak oso malda pikoa eduki duela. Harreraguneko mahaia, berriz, 80 zentimetro baino gehiago eduki ditu. Gainerako alderdiak ezin izan ditugu aztertu, ez baitigute utzi barrena sartzeko.



VALENTZIA

Hiriko ibilbidea: Ona. Zenbait lekutan, espaloi-ertzak ez dira egon ongi beheratuak, eta oinezkoentzako igarobideak higatuta egon dira. Batzuetan, edukiontzien traba egin dute bidean.



VALLADOLID

Igerilekua duen udal-kiroldegia: Onargarria. Harrerako mahaia garaiera egokikoa izan da, bana behealde ez du eduki irekia, gurpil-aulkian doan hurbiltzeko modua izan dezan. Igerilekuan, ez dugu ikusi sartzeko eskailera egokiturik, ezta sakonera gutxieneko eremura sartzeko plataformarik ere.



ZARAGOZA

Hiri-autobusa: Onargarria. Txartel-makina urrutiko gure gaur egungo iritsi dadin. Gidariak ez du itxaron, eta abiatu egin da gurpil-aulkian joan den laguna behar bezala kokatu aurretik.

Kiroldegietan sarbidea kalearen maila berean egon dadila komeni da, eta halaxe gertatu da Donostian, Gasteizen, Kordoban, Murtzian eta Valentzian. Gainerakoetan, berriz, arranpak edo eskailera arranpadunak eduki dituzte. Ateak, gainera, aski zabala izan behar du, gurpil-aulki bat sartzeko adinakoa. Adibiderik txarrena Gasteizko kiroldegi batean antzeman dugu: eskuz irekitzeko ate bat eduki du, oso astuna eta estu samarra.

Kiroldegira sartu eta igerilekurako bidean, eskailera izanez gero (hamaika bisitatan), beti egon da moduren bat horiek saihesteko: igogailuak (Bartzelona, Cadiz, Donostia, Gasteiz, Kordoba, Madril, Murtzia, Oviedo eta Zaragoza) edo arranpak (A Coruña eta Valladolid). Behin igerilekuan, sarrerako atea aski zabala izan da guztietan (gutxienez, 80 zentimetrokoa), gurpil-aulki bat sartzeko bezainbestekoa. Uretan sartzea, ordea, ez da hain erraza izan mugikortasun-arazoak dituztenentzat, gabeziak egon dira eta irispideetan: sakonera txikieneko gunera sartzeko arranpak falta izan dira (aztertu ditugun 15 igerilekuetatik 9tan), ur azpian funtzionatzen duten plataformak (zazpitan), sartzeko eskailera egokituak (seitán) eta garabi eta igogailuak (bostetan). Azkenik, ia kiroldegi guztietan eduki dituzte komun eta dutxa egokituak, nahiz eta Oviedokoan biltegi gisa erabiltzeko jarria egon den.

+ www.consumer.es